6.- Bestelako moduluak, orduko	6.- Otros módulos, por hora	
Matrikula	Matrícula	1,20
Materiala	Material	0,09

5.- 2013ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

5.- Dar cuenta de la liquidación del presupuesto de 2013.

Udalbatzari 2013ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman zaio, hau 360/2014 dekretuan agertzen da. Honek honela dio:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

"Ikusita kontuhartzaileak egin duen aurrekontu-likidazioa, Tolosako Udalaren **2013**ko ekitaldiari dagokiona.

Ados egonik bai likidazioarekin, bai hura osatzen duten agiriekin, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3. artikulua emandako ahalmenez baliatuta,

EBATZI DU

1.-Onartzea Tolosako Udalaren aurrekontuaren likidazioa, 2013ko ekitaldiari dagokiona. Hona hemen, laburtuta:

1.Diruzaintzako izakin likidoa		8.033.893,95
2.Kobratu gabeko saldoak		3.615.066,74
Sarreraren aurrekontuko zordunak: urteko ekitaldia	1.968.236,97	
Sarreraren aurrekontuko zordunak: itxitako ekitaldiak	1.516.048,12	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	130.781,65	
- Aplikatu gabeko kobrantzak	0,00	
3.Ordaindu gabeko saldoak		2.903.668,65
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: urteko ekitaldia	1.727.935,65	
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: itxitako ekitaldiak	2.640,00	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.173.093,00	
- Aplikatu gabeko ordainketak	0,00	
4.DIRUZAINZTA GERAKIN GORDINA		8.745.292,04
5.Saldo kobragaitzak		1.620.715,76
6.DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		7.124.576,28
7.Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina		1.841.893,15
8.GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GERAKINA		5.282.683,13
9.Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza		2.076.195,11
Eskubide onartuak	25.179.357,74	
Obligazio onartuak	23.103.162,63	
10.Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitzak		-90.035,34
Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko obligazioen bajak	250,00	
Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko eskubideen bajak	90.285,34	
11.AURREKONTU EMAITZA (doitu aurretik)		1.986.159,77
12.Doiketak, aurrekontu emaitzan		

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

Diruzaintzako Gerakinaren bitartez finantzatutako obligazioak 651.916,42
Ekitaldiari egotzitako desbiderapen finantzarioak -777.652,24

13.AURREKONTU EMAITZA DOITUA 1.860.423,95

14. Txerta daitezkeen kreditu gerakinak 3.559.825,89

15. Txertatu ezin diren kreditu gerakinak 1.907.278,12

16. KREDITU GERAKINAK, GUZTIRA 5.467.104,01

2.-Onartzea indarreko ekitaldiko aurrekontuari txerta daitezkeen kreditu gerakinak txertatzea. Guztira, 3.559.825,89 euro dira.

Finantzazioa hau da:

1.-Sarreren konpromisoak 2014an	655.171,73
2.-Epe luzerako mailegua	986.610,37
3.-Diruzaintza gerakina finantzaketa lotua duten gastuentzat	1.720.016,67
4.-Diruzaintza gerakina gastu orokorretarako	198.027,12

Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Gerakin erabilgarria kreditu txertaketa egin ondoren **5.084.656,01** euro dira.

3.- Likidazioaren espedientearen kopia Foru Aldundira bidaltzea, indarrean dagoen araudiak agindutakoa betetzeko.

4.- Udalbatzari Dekretu honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Parte hartzeak:

..Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Lehenago astean egin genuen Ogasun Batzordea eta azaldu zen gaia bertan. Orain, herritarrei azaldu nahi genieke Udalaren kontuak nola geratu diran; arrazoi horrengatik, goizean prentsari dei egin zaio informazio guzti hau emateko, baina Plenoa ere aprobetxatu nahi da. Azken batetan, herritarrei adierazi nahi diogu, urteko beste momentu batzuetan bezala, aurrekontuei begira batez ere, euren dirua izanik, informazioa gardentasunez adierazi nahi izan dugulako, bai aurrekontua prestatzen aritu garen momentuan, bai aurrekontua aurkeztu dugunean eta, kasu honetan, baita likidazioari dagokionean. Saiatzen ari gara aurrekontuak herritarrengana hurbiltzen. Herritarren dirua da kudeatzen duguna eta garrantzitsua deritzogu herritarren ekarpenak jasotzea eta beraiek informatuta egotea euren dirua zertan gastatzen den eta nola kudeatzen den. Aipatu izan dugun bezala, gure aurrekontuei dagokienean, urtea itxi dugunean, nahi dugu isladatu nolako egoeran geratu den aurrekontua. Helburu nagusienak dira aurrekontuen kontrolari eta mailari eustea, izaera sozialeko gastuak mantenduz eta aurreikusitakoa ondo kudeatuz; hori alde batetik, eta, bestetik, beste helburuetako bat da zorra murriztea. Datuak adierazten digute bi helburu horiek pixkanaka betetzen goazela.” Jarraian likidazioari buruz informazioa eman du.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Esplikazio gehiago behar duten gauzak badaude. Udal maileguena, bankuari ordaintzen dioguna, Usabalgo zorra da hori. Sozietateko maileguetan hor azaltzen direnean 5 milioi, badirudi dirua nonbaitetik aterata, zorra ordaindu dela, baina hori da zorra etxebizitzak egiteagatik, etxe horien balioa delako. Etxe horien balioa ez dago. Etxeak egin eta zorra dago, hipoteka bat dago, eta etxeak saldutakoan kenduko da zorra. Benetan zorra kendu dena eta udalarentzat esfortzu bat izan dena da aurrekontuetako aurreneko lerroan agertzen dena, Santa Luzikoa eta Elosegi parkekoa.”

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Hor azaltzen dena da Udalak lehen zeukan zorra eta orain daukana. Egia da sozietate maileguak era batera azaldu direla, baina hemen jartzen da Udalak zorra duela. Erabaki da diru bat hortara bideratzea. Berazubin erabaki da modu batera gestionatzea, bestela sozietate maileguan agian zor gehiagorekin egongo ginateke.”

6.- 1/2014 kreditu aldaketaren berri ematea (gehituta aldatutako kreditua). 6.-Dar cuenta de la modificación (por incorporación) de créditos 1/2014.

Udalbatzarkideei Kontuhartzaileak egindako txostenaren berri eman zaie. Txostenak, hitzez-hitz, honela dio:

“Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa izan da 2013ko likidazioan (2.394.113,46 euro) eta diruzaintza kalkulatu duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 5.282.683,13 euro, eta lurreamendi egoitzak, 435.235,67 euro).

2014ko zor helburua ere betetzen dute. Eta defizitaren kasuan, diruzaintza gerakina erabiltzearen eragina kenduta, helburua ere betetzen dute.

Baldintzak betetzen direnez, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

TXOSTENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Tolosako Udalaren 1/2014 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren 2014ko behin-betiko aurrekontuak 1.040.354,16 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Hasierako aurrekontuak 1.864.300,00 euroko superabita zuen. Beraz, 1/2014 kreditu aldaketarako espedienteak 2.904.654,16 euroko defizita sortu du.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 1/2014 kreditu aldaketaren espediente finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 1.918.043,79 euro erabili dira. Finantza lotua duten gastuetarako gerakinetatik 1.720.016,67 euro eta gastu orokorretarako gerakinetatik 198.027,12 euro.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak superabita du, hain zuzen 877.689,63 euroko superabita, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Gastuaren araua

2013ko eta 2014ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 15,34 da.

Kalkuluak egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BALORAZIOA (Kreditu aldaketa 1/2014)	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2014
-	
2013ko aurrekontu likidazioaren gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	26.134.551,45
2013ko aurrekontu likidazioaren interesak	-243.946,80
Finantzaketa lotua duten gastuak 2013an	-801.106,88
2013ko gastu konputagarria	25.089.497,77
2014ko gastu ez finantzarioa (1-7 kap.)	32.934.675,89
2014ko interesak	-283.200,00
SEC doiketak:	
-2014an inbertsio errealak besterenganatzeagatik	-492.000,00
-aurrekontuaren exekuzio mailarengatik	-1.200.768,94
Finantzaketa lotua duen gastuak 2014an	-1.995.117,63
Araudian egindako aldaketen eragina dirubilketa	-25.930,00
2014ko gastu konputagarria	28.937.659,32
Gastu konputagarrien bariazioa	15,34%
Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen eragina	1.670.140,94
Portzentaian	6,66%
Gastu konputagarrien bariazioa Gerakinaren eragina kenduta	8,68%

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

Diruzaintzako Gerakina erabiltzearen eragina 1.670.140,94 eurokoa da 2014ko gasutan. Baina honen eragina kenduta ere 2013 eta 2014ko gastu konputagarrien arteko bariazioa %8,68 da eta 2014rako ezarritako helburua gainditzen du.

Plana ordezkatzeko baldintzak betzeari buruzko egiaztapena

Lehendabiziko baldintza

Goien zerrendatutako entitateek 2013ko aurrekontuaren likidazioan 2.394.113,46 euroko aurrezki garbia izan dute eta diruzaintza kalkulatzeko duten bi entitateek positiboa dute (Tolosako Udalak, 5.282.683,13 euro, eta lurreamendi egoitzak, 435.235,67 euro).

Bigarren baldintza

Entitate hauek 2014rako zor helburua betetzen dute. Ondoko taulan xehatzen dira datuak:

FINANTZEN IRAUNKORTASUNA (Kreditu aldaketa 1/2014)	AURREKONTU BATERATUA (SEC) 2014
ZOR BIZIA 2014/12/31n	11.514.089
SARRERA Arruntak (1-5) kap. 2013ko likidazioa	27.273.121,69
ZOR BIZIA / SARRERAK (1 - 5) kap.	42,22%
MUGA	95,00%

Eta defizitaren kasuan, lehen ikusi dugun moduan, diruzaintza gerakina erabiltzearen eragina kenduta, helburua betetzen dute.

Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena

Tolosako Udalaren 2013ko kreditu gerakinen txertaketa 2014ra (1/2014 kreditua aldaketa) guztira 3.559.825,89 eurokoa izan da. Batez ere, seigarren kapituluko inbertsioetarako kredituak txertatu dira (3.460.759,89 euro), hain zuzen 2013an onartutako hiru obrak egin ahal izateko:

- Larramendiko biribilgunea
- Amartzeko urbanizazio obrak

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

- Euskal Herria plazako alojamendu dotazioanalak

Euskal Herria plazako kasuan soilik finantzatuko dira obrak maileguaren bidez. 2013an onartu zen mailegutik 986.610,37 euro erabiltzea aurreikusten da.

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorrak eta ez dute Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Lehen adierazi den moduan, goien aipatutako entitateen aurrezki garbia 2.394.113,46 euro izan da 2013ko aurrekontuaren likidazioan, kontuak bateratu ondoren. Eta 2014ko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da (110.234,00 euro).

Kontuak bateratu aurretik, entitate bakoitzaren egoera hau da:

	Aurrezki Garbia 2014
Udala	1.390.234,00
Iurreamendi	0,00
Erretengibel S.A.	0,00
Tolosa Lotzen S.A.	-1.280.000,00

Udalaren kasuan, aurrezki garbia sarrera arrunten %6,1 da. Normalean, ratio hau %2 eta %5 arteko tartean egotea gomendatzen da, gutxienez.

Iurreamendi eta Erretengibelen kasuan aurrezki garbia 0 da. Iurreamendi egoitzan ez dira aurreikusten inbertsio berririk eta Erretengibel S.A.n Udalaren ekarpenekin eta saltzeko dituen etxebizitzekin finantzatzen dira.

Tolosa Lotzen S.A.k berriz, aurrezki garbia negatiboa du. Honen arrazoia, Laboral-Kutxaren mailegua (1.305.000 euro) osorik itzuli egin behar dela 2014ko maiatzan. Gastu hau ez da ohizkoa eta Berazubiko terreneen salmentarekin ez litzateke hurrengo ekitaldietan errepikatuko.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

ONDORIOAK

Administrazio izaera duten entitateen kontu bateratuen 2014ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2013ko kreditu gerakinak 2014ra txertatu ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da bateratze mailan entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen.”

7.- Eraikinak eta lursailak kontserbatzeko, birgaitzeko eta eraikitzeko eginbeharrak arautzeko Udal Ordenantzaren onarpena.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko EAeko 2/2006 Legeak, jabetza pribatuari dagokionez, eraikitzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko eginbeharrak ezartzen ditu hainbat kasutan. Eginbeharrak betetzen ez diren kasuetarako ere partzelen edota eraikinen nahitaezko besterentzea edo nahitaezko desjabetzea ezartzen du.

Legeak dioena garatze aldera, eta aipatutako eginbeharrak betearazteko egokia jo du Udalak Ordenantza onartzea. Gainera, eta bereziki, honako arrazoi hauek ere izan ditu kontuan Udalak Ordenantza hau indarrean jartzeko:

1.- Hainbat eraikin daude aurri-egoeran eta haien jabeek ez dute betetzen eraikineko eginbeharra.

2.- Eraikinen ikuskatze teknikoak jarri du martxan Udalak eta azterketa horrek erakutsi du eraikin askotan behar-beharrezkoa dela birgaitzeko lan garrantzitsuak egitea. Kasu hauetako eragile birgaitzailearen figurak aukera interesgarriak eskaintzen ditu.

Hortaz, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 d) eta 49. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta espedienteaz aztertu ondoren, Hirigintza batzordearen diktamenarekin bat etorri, Udalbatzak, aho batez,

7.-Aprobación de la Ordenanza Municipal reguladora del cumplimiento de los deberes de conservación, rehabilitación y edificación en edificios y parcelas.

La Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo de la CAV, en relación con la propiedad privada, establece unas obligaciones para la construcción, conservación y rehabilitación de edificios. Establece, asimismo, para los casos de incumplimiento, la enajenación y expropiación forzosa de las parcelas o de los edificios.

En desarrollo de lo dispuesto por la ley, así como para hacer cumplir las obligaciones señaladas, el Ayuntamiento considera procedente la aprobación de la Ordenanza. Además, y en particular, el Ayuntamiento ha tenido en cuenta estas otras razones para la puesta en vigor de esta ordenanza:

1.- La existencia de diversos edificios en estado de ruina, y el incumplimiento de sus obligaciones para con el edificio por parte de sus propietarios.

2.- El Ayuntamiento ha puesto en marcha la inspección técnica de edificios, que ha dado como resultado que muchos de los edificios requieren importantes obras de rehabilitación. En estos casos la figura del agente rehabilitador ofrece opciones interesantes.

Por todo ello, de conformidad con los artículos 22.2 d) y el 49 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, examinado el expediente y a la vista del dictamen de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

Lehena.-Hasierako onespina ematea Eraikinak eta Lursailak Kontserbatzeko, Birgaitzeko eta Eraikitzeko eginbeharren betetzea arautzeko Udal Ordenantzari.

Bigarrena.-Espedientea 30 egunez jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu taulan argitaratuz, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.-Araudia behin betiko onartutzat jotzea, aurreko puntuan adierazitako epean ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten.

Primero.-Aprobar inicialmente la Ordenanza municipal reguladora del cumplimiento de los deberes de conservación, rehabilitación y edificación en edificios y parcelas.

Segundo.-Someter el expediente a información pública, publicando un anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en Tablón de Edictos del Ayuntamiento, por el plazo de treinta días para presentación de reclamaciones y sugerencias.

Tercero.-Si no se presentara alegación alguna dentro del plazo establecido, considerar aprobada definitivamente la citada Ordenanza.

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea: “*Ordenantza honen bitartez nahi duguna da aktibatzea eta mugitzea egoera kaxkarrean dauden etxebizitza edo gune horiek. Ordenantzak ahalbideratuta, etxebizitza horiek egokitzea sustatuko litzateke, eta prozedura jarri da martxan. Epeak eta legeak ezartzen dituen eskubide guztiak bermatuta, momentu batean esparru hori subasta publikora aterako litzateke, ateratakoa jabeei emanez, etxebizitza zaharkitu eta aurri egoeran dagoena berritzeko aukera izango luke.*”

8.- Euskal Herria Plazako Zuzkidura Bizitokien Estatutuak onartzea.

8.-Aprobación de los Estatutos de los Alojamientos Dotacionales de la Plaza Euskal Herria.

Tolosako Udal Gobernu Batzarrak, 2014ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Tolosako Euskal Herria plazako 1B eraikinean gazteentzako 25 zuzkidura-bizitokiak erabilera zesioan esleitzeko oinarriak onartu zituen.

Aipatutako Oinarrien 16. artikulua ezartzen duenaren arabera, zuzkidura bizitokien erabiltzaileek komunitate bat osatuko dute eta honen helburua izango da finkaren eta, bereziki, elementu komunaren administrazio eta funtzionamendu gokiak bermatzea.

Horiek horrela, proposatutako Estatutuak aztertu eta batzordeak aldeko diktamena eman ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasierako onespina ematea Euskal Herria Plazako Gazteentzako Zuzkidura Bizitokien erabiltzaileen komunitatearen Estatutuei eta jendaurrean jarrita edukitzea udaletxeko iragarki taulan, web orrian (tolosakoudala.net) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 30 egunez, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.- Jendaurreko epean alegaziorik aurkezten ez bada, aipatutako Estatutuak behin-betiko izaeraz onartutzat jotzea.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

9.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena onartzea, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

9.- Aprobación del convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Tolosa para la financiación del servicio de ayuda a domicilio para la atención a dependientes.

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuetako Legeak, 22.1 artikuluan, Etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako gizarte zerbitzuen barruan sartzen da eta zerbitzu horiek eskaintzea udalen egitekoa da.

Legearen arabera, zerbitzu horiek udal eskumenekoak badira ere, udalek ezin dute zerbitzu horien finantzaketa bere gain hartu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen arreta hobetzearen, egoki ikusten dute lankidetzaren hitzarmen bat egitea.

Hortaz, hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa urtarilaren 1etik duelarik; eta indarraldia 2014ko abenduaren 31 artekoa izango da. Hitzarmenaren epea amaitzean besterik gabe luzatuzat joko da beste urte natural bateko aldirako, betiere nahikoa eta egokia den aurrekontu xedapena badago luzatutako ekitaldirako.

Hori guztia aztertuta, eta ikusirik mahai ganean geratzeko EAJ/PNVren proposamena ez dela onartu (proposamenaren alde EAJ/PNV (7), aurka Bildu (7) eta abstentzioa PSEE-PSOE (1)), Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak 2014ko maiatzaren 22an jaulkitako aldeko diktamenarekin bate etorritik, Udalbatzak, Bildu eta PSEE-PSOE alderdien aldeko botoekin eta EAJ/PNV alderdiaren kontrakoekin, gehingoz,

ERABAKI DU:

Lehen: Tolosako Udalak hartzea, 12/2008 Gizarte Zerbitzuetako Legearen arabera etxeko zerbitzu bere eskumenekoa denez, zerbitzu horri dagozkion konpromisoak.

Bigarren: Konpromiso horiek gauzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmena, onartzea.

Hirugarren: Onartutako hitzarmena formalizatzeko behar adineko ahalmenak ematea alkateari.

...Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: *“Hitzarmen honekin proposatzen zaigu 2014-15ean zehar %15eko jaitsiera izatea etxeko zerbitzuan. Esan behar, guk ez dugula hau onartzen. Udal batek bere interesen kontrako hitzarmena ez dugu defendituko, inolaz ere. 2008an dependentziaren legea onartu zen eta horren garapenerako eratu ziren mahai politiko bat eta tekniko bat; alderdi guztietako ordezkariak bertan zeuden ordezkari gisa. Hor sortutako eztabaidaren ondorioz, emandako urratsarekin egoitzen defizita estaltzeko diru jakin bat jarri zen. Ez zen planteatu igoera hori emango zenik etxeko laguntza edo diru kopurua ukituta. Bestetik, esan beharra dago behar adina elkarlana ez dagoela Instituzioen artean. Eta, kasu honetan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan honen*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

inguruko debate zintzo bat ez dela eman. Pauso hau eman aurretik eztabaidatu egin behar da. Hitzarmen hau onartzea Tolosako Udalaren eta Tolosarren interesen kontrakoa da. Guk mahai gainean uztea proposatu nahi dugu. Aurrera egitea pentsatzen bada, guk kontra bozkatuko dugu.”

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Egia da eskumen berrantolaketa hau 12/2008 legearen arabera dela. Aldundiak, egiten duen proposamenarekin, modelo integral bat proposatzen du. Hor agertzen da egoitza eta etxez etxeko eskumen aldaketa, mendekotasunaren arreta integrala hasieratik emateko. Egia da %15a jeisten dela, baina trukean Aldurdiak autonomoak ordaintzen ditu eta Udal egoitzen defizita bere gain hartzen du. Eskumen aldaketa honekin fluxu finantzieroa aldaketa dator. Gizarte Politikako diputatuak azpimarratu izan du, plan hau aurkezterakoan, plana osotasunean betetzeko ezinbetekoa dela ekarpen legea aldatzea. Aipatu, baita ere, Jokin Bildarratz Sorronek, aurreko Tolosako alkatea izan zenak, 2010eko azaroaren 11n lurreamendiko langileekin egindako batzar batean esan zuela, tartean hauteskundeak egonik, ez zela “ezer mugituko eta egoitzetako kudeaketa ez zela gauzatuko; porque no hay madurez suficiente para abordar un debate de este tipo”. Hori ikusita, ez dut uste mugitzeko asmo gehigi zeukazutenik.”

Honi buruz dio: “Eskumen berrantolaketa 12/2008 Legearen arabera 2009 urtetik egina egon behar zuen eta orain arte ez da egin; PNV-k aurreko legealdian, bai Aldundian eta bai Udalean ez da hau gauzatzeko gai izan. Aldundiak egin ditu bere etxeko lanak. Bakoitzak bere eginkizunak egin beharra dauzkate”.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Eskatuko nuke kuadro batean jartzea lau-bost urteren buruan zein izango den gure eszenatokia, ikusteko etxez-etxeko laguntza nola joango den urtez-urte eta Erresidentziarena noiz pasako den. Guk planteamendu osoa ikusi nahi dugu.”

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Iurreamendin gaia tratatua izan da behin eta berriz. Prozesua azaldu dut eta hobekuntza plan horrek dena jasotzen du. Diru ekarpenari dagokiona; bi taldetan hartuko dituela egoitzak Foru Aldundiak, batetik, zerbitzu guztiak azpikontratatuak dituenak eta, gero, bestea. Guzti hori hobekuntza planetan jasota dago, eta kuadroak, eta zenbatekoak txosten ekonomikoetan agertzen dira.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Zergatik hitzarmenenan ez da hori dena jasotzen?”

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Urte hasieratik Foru Aldundia autonomoak ordaintzen ari da. %15a proposatzen da hitzarmen itxi honetan, gero beste hitzarman bat etorriko da eta hobekuntza planean jasota dago. Zuk aipatuta bezala, oso inportantea da modu integralean hau tratatzea. Pozten naiz biok ados gaudelako; modu bateratuan tratatzea nahi dugulako.”

Alkateak konbidatzen ditu batzordeetan gaiak eztabaidatzea, ez Plenoan.

12.-Ikurriñaren aldeko eta inposaketen aurkako mozioa.

12.- Moción a favor de la ikurriña y en contra de las imposiciones.

Lehendabizi, Idazkariak adostutako mozioa irakurri du. Honek honela dio:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

“Espainiako Gobernuaren ordezkariak egindako errekerimenduaren ondoren eta 527/2013 epaiaren bidez, Tolosako Udala, ekainaren 2rako, Espainiako Bandera jartzera behartu dute, herritarren borondatearen aurka. Epaia betetzerakoan, Tolosako Udalak ondorengo adierazpena helarazi nahi die herritarrei:

- *Herriak aukeratzen ditu bere ikurrak, bereak egiten ditu eta horregatik dira herriaren ikur. Aldiz, legearen indarrez inposatutakoak badira, orduan, inposizioaren ikur bihurtzen dira.*
- *Espainiako bandera zigorraren mehatxupean inposatutako sinboloa da gure erakundean. Herritar gehienon nahiaren aurka ezarri eta herritarren ordezkarien erabakimenaren kontra jarriko da. Espainiako banderak ez ditu tolosarrak ordezkatzeko eta inposaketaren bidetik bakarrik ikusiko dute ikur hori. Ez ditugu banderak eta koloreak gutxiesten. Aitzitik, ordezkatzeko dituzten lurraldeetako ikur izatea zilegi dela deritzogu. Baina, era berean, argi dugu nongoak garen eta zerk ordezkatzeko gaituen.”*

Jarraian bozketa egiten da eta Bildu eta EAJ/PNV alderdien aldeko botoekin eta PSEE-PSOE alderdiaren kontrako botoarekin, Udalbatzak, gehiengoz, mozioa onartu du.

Parte hartzeak:

... Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ/PNV: “Nire amak, alkatea izan zenak, bere garaian honi buruz egindako lerro batzuk irakurri nahi nituzke:

IKURRIÑA ETA AHAZTUTAKOA

Datorren asteartean egingo den Udalbatzan ezker abertzaleak benetan gertatuko ezkutatu nahi izango du: Alkatearen inhabilitazioa ekiditeko Bilduk Espainiar bandera jarriko du Tolosako Udal Etxean hala erabaki duen sententzia onartuz. Agian bakarren bati ahaztu egingo zitzaien 1983an gertaturikoa, ni EAJko Alkate nintzela, San Juan festen bezperatan ezker abertzaleak ikurriña bakarrik jartzeko asmoa lau haizetara zabaltzeko eta Udal Etxean zegoen espainiar bandera Madrilerara bidaltzeko asmoz aurkeztu zuen mozioa. Eta hori garai haietan bai Tolosan bai ingurutan festak zirenean ikurriña soilik jartzea normala zela jakinik. Mozioa ikusi ondoren, Alkatetzatik ezker abertzaleari mozioa bertan behera uztea eskatu zitzaion, lortuko zen gauza bakarra arazorik ez zegoen tokian talka sortzea bait zen, honek zekarzkien ondorio juridikoak barne. Ezker abertzaleak muzin egin zion eskaera horri eta mozioa Udalbatzak onartu zuen. Horrela, zegokidan bezala, Udalak onartutakoa egin nuen eta izan genuen lehen ondorioa Plaza Zarra Guardia Civilak hartu zuela ikustea izan zen; egoera honen aurrean ez zen ezker abertzaleko kiderik agertu, aurpegia eman genuen zinegotzi bakarrak EAJkoak izan ginelarik. “Banderen Gerra” izendatu zutenaren hasiera izan zen. Mozioaren onarpenak epaitua izatera ere eramanez, jasan nezakeen inhabilitazioak ez zuen ezker abertzalea ezertarako kezkatu. Aurrekari hau ezagututa, deigarria egiten zait orain, ezker abertzalea boterean dagoen unean espainiar bandera jartzea tokatu denean, ezker abertzaleak sententzi hau onartzea zein naturaltasunez egiten duen ikustea. Ez dezagun ahaztu ere, duela ez denbora asko, ezker abertzaleatik biraoak botatzen zitzaizkiola beraiek orain egin behar dutena egiteagatik, hau da, sententzi baten ondorioak onartuz espainiar bandera jarri. Hau bai koherentzia, noski. Ez naiz ni izango oraingo Alkateari sententzia ez betetzearen ondorioak onartzea eskatuko diona, baina ez daitezela etorri orain beraiek sekulan eman ez duten laguntza eske.”

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.05.27

**MIRENTXU ETXEBERRIA ARRUE
TOLOSAKO ALKATEA 1983-1987”**

... Alkatea: “Gai hontaz asko hitz egin dugu, lehenengo eskaera aspaldi etorri zelako. Argi daukat kasu hontan, bai Espainiako Delegaritzak Euskadin, bai Urkixo jaunak, gatazka eta Euskal Herritarron enfrontamentua bilatu nahi duela. Ahoan bakea, demokrazia eta justiziaz betetzen zaen horiek ari dira gatazka sustatzen. Min asko dute eta dugu. Euskal Herriko herri gehienetan inposatutako ikur horiek ezarrita daude. Argi eta garbi dugu ez dela gure ikurra, inposatua dela, gatazka sustatzea nahi dutela, enfrontamendua nahi dutela eta argi dugu herria egunerokoan eraikitzen dela. Gure ikurra ikurriña da eta horren atzean bakoitzak bere sentimenak, sentsazioak, bizipozak dauzka. Euskaldunon ikurra da. Honen inguruan larunbatean izango den ekitaldira gonbidatzen zaituztet. Iritsiko da inposatutako ikurra kentzeko ordua, argi eta garbi daukagu, eta eguneroko lanarekin eraikiko dugu Herria. Ez gera probokaziotan eroriko. Argi esango dugu: Urkixok pentsatzen badu gehiago lerrokatzen gaituztela eta gehiago espagnolizatzen gaituztela, jai dute! Inposaketak sortuko duena da beraien ahuldadea. Pozten naiz denok bat egin dugulako mozio honekin. Berriro ere, herritarrak gonbidatzen ditut ikurriñaren alde egingo den ekitaldian parte hartzera.”

13.- Galde-eskeak.

13- Ruegos y preguntas.

Ez da egon.

Besterik gabe, gaueko bederatzitan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA